

ESTATUTUAK

Elkarkidetza LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE

ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

Elkarkidetza Lehentasunezko Enpleguko BGAE

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eraketa.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, Euskadiko Ezkerrak eta ELA/STV –Eusko Langileen Alkartasuna– eta CC.OO. –Langile Batzordeak– zentral sindikalek, guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuak, 1986ko urtarrilaren 22an biltzar eratzaillea egin zuten, eta, Eusko Jaurlaritzaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legearen eta aplikaziozko beste xedapenen babesean, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde hau sortu zuten, Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea izenarekin. Elkartearen xedea da aurreikuspen-aurrezpena sustatzea Euskadiko Erakunde eta Organismo eta Sozietate publikoetako eta Euskadiko sektore publikoko erakundeetako langileentzat, eta baita haiek euren langileekin hartutako betebeharretan ordeztu dituzten beste edozein erakundetako langileentzat ere (aurrerantzean, Estatutu hauen ondoretarako, horiek guztiak «Instituzioak» izango dira). Gero, Batzar Nagusia eta Gobernu Batzordea osatzen joan ziren bazkide babesleen eta bazkide osoen ordezkarien bitartez Erakundearen gobernu-organoetan sartu ziren LAB –Langile Abertzaleen Batzordeak– eta UGT –Langileen Batasun Orokorra– sindikatuak eta PSE-PSOE –Euskadiko Alderdi Sozialista–, PP –Alderdi Popularra– eta EH-BILDU alderdi politikoak.

Hortaz, subjektu konstituziogileen arabera eta haren bazkideen izaerari eta loturari erantzunez, Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea lehentasunezko enpleguko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde moduan egituratu zen.

2. artikulua. Izena Araubide Juridikoa.

Eratu den borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak “ELKARKIDETZA LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE” izena du, Estatutu hauen arabera arautzen da, eta horietan xedatzen ez direnen kasuan, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legea –“Legea”–, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretua eta aplikagarriak diren eta indarrean dauden gainontzeko-lege xedapenak beteko dira.

Estatutu hauen arabera, "Erakundetzat" joko da "ELKARKIDETZA LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE", eta, horrela izendatu ahal izango da.

3. artikulua. Egoitza soziala.

Erakundea Gasteizko Ramon y Cajal kaleko 7-9 zenbakian helbideratuta dago. Han dauzka kokatuta administrazioa eta zuzendaritza.

Gobernu Batzordearen erabakiz, jarduera gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren sukurtsalak, agentziak, ordezkari-tza-bulegoak eta delegazioak sortu, ezaba edo lekualda daitezke.

4. artikulua. Iraupena. Jardueraren hasiera-data.

Eratutako Erakundeak iraupen mugagabea du, Elkarkidetza izenaren pean 1986ko urtarrilaren 1ean ekin zion jarduerari eta edozein unetan desegin daiteke, Estatutu hauekin eta Legearekin adostasunean.

5. artikulua. Lurralde-eremua eta eremu pertsonala.

Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen du du haren jarduera, instituzioetako bazkideei eta pertsona onuradunei Estatutu hauetan eta Erregelamenduan jasotako eta araututako estaldurak eta prestazioak emateko helburuarekin.

6. artikulua. Erakundearen helburua.

Erakundearen helburua da haren bazkideei eta pertsona onuradunei babes ematea erretiroaren, ezgaitasun iraunkorraren, heriotzaren, gaixotasun larriaren edo iraupen luzeko langabeziaren kontingentzien kontra, biziarteko pentsioa, aldi baterako pentsioa, kapitala edo mistoa ordainduta, legeak hala xedatuta haren bazkideei eta pertsona onuradunei dagozkien beste prestazioen osagarri moduan.

Halaber, Erakundearen ondarea kudeatzea, administratzea eta ordezkatzeta du xede, bazkideen prestazioei estaldura emateko.

Erregelamenduak onartzen dituen bestelako funtzioak burutzea, erakundearen helburua eta babes-ekintza lortzeko beharrezkoak direnak.

7. artikulua. Erakundearen interesa eta gobernamentu onerako politika eta funtzio gakoak.

7.1. Erakundeak haren helburua bete nahi du, irizten baitzaio lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko erakunde baten bazkide diren guztiek aurreikuspen-aurrezpena

lortu nahi dutela, ahal dela bazkideen eskubide ekonomikoen balioari lotuta dagoen ondare bat kudeatuz, pentsio osagarri bat eratzeko, sistema publikotik jaso daitezkeenaz gain.

7.2. Erakundearen nahia da erakundea bera eta hari lotutako pertsonen indarreko legedia eta korporazioaren gobernamentu onerako politika bete ditzatela, haien jardunean. Helburu horretarako, Gobernu Batzordeak bere gain hartuko ditu arriskuen kudeaketarekin, barne-ikuskerarekin eta funtzio aktuarialarekin zerikusia duten politika idatziak, eta estatutuen bidez hartutako konpromiso hori jasoko dute.

II. KAPITULUA ELEMENTU PERTSONALAK

8. artikulua. Bazkide motak eta modalitateak.

Erakundeak bazkide mota hauek ditu:

- Bazkide babesleak eta
- Bazkide osoak.

Bazkide osoek, era berean, modalitate hauek har ditzakete: jardunean dagoen bazkide osoa, etendura-egoeran dagoen bazkide osoa eta bazkide pasiboa.

Onuradun izango dira, kausatzailearekin duten harremanarengatik, kontingentziaren ostean prestazioaren titular izatera pasatzen diren pertsona fisikoak.

LEHENENGO ATALA.- BAZKIDE BABESLEAK

9. artikulua. Definizioa.

Erakundeari atxikitako instituzioak izango dira bazkide babesleak.

10. artikulua. Onarpen-baldintzak.

Instituzio bat Erakundearen bazkide babesle moduan sartzeko, haien organo eskudunak aurrena hala erabaki ondoren, eskaera egin beharko du, eta Estatu hauekin ados daudela adierazi, dagokion sartzeko-erabakia sinatuta, hala badagokio. Erakundearen Gobernu Batzordeak onartatzen eman beharko du eskaera hori.

Eskaerei erantzuteko epea hiru hilekoa da gehienez ere, aurkezten direnetik. Epea amaituta erabaki espresik hartzen ez bada, eskaera onartu dela iritziko zaio. Gobernu Batzordeak ezezkoa ematen badio, erabakia arrazoitu beharko du.

11. artikulua. Baja.

Bazkide babesleak arrazoi hauengatik atera litezke Erakundetik:

- Haren organo eskudunak espresuki hala erabakitzea.
- Erakundea deuseztatzea eta desegitea.

12. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Bazkide babesleek haien partaidetza sozial eta ekonomikotik eratorritako eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

12.1. Eskubideak:

- a) Batzar Nagusiko bileretan parte hartzea Estatutu hauen II. kapituluan aurreikusitako moduan.
- b) Gobernu Organoen karguetarako izendapenak egitea eta hautatuak izatea, Estatutu hauen III. Kapitulan ezartzen den sistemaren bidez.
- c) Erakundearen egoerari buruzko informazioa jasotzea. Edonola ere, informazioa eskatu ahal izango dute, bai idatziz bai ahoz, eta Gobernu Batzordeak ezingo dio eskaerari uko egin, Erakundearen interes soziala kolokan jartzen ez badu. Informazioa bitarteko telematikoen bidez emango da, Erakundearen web-orrian igota (www.elkarkidetza.eus), posta elektronikoz edo ohiko postaz bidaltzeko eskaera egin ezean. Hala ere, Batzar Nagusirako erabakien kasuan, baliteke bestelakorik ezartzea.
- d) Estatutu hauek, Prestazioei buruzko Erregelamenduak eta aplikaziozko beste lege-arauek aitortzen dizkieten gainontzekoak.

12.2. Betebeharrak:

- a) Haien kargura ezarritako ekarpenak burutzea eta nominan deskontatzea eta jardunean dauden bazkide osoen kuotak Erakundeari ordaintzea.
- b) Erakundeari atxikitako langileen-zerrendan gertatzen diren aldaketen berri ematea, Erakundearen funtzionamenduari eragin badiezaioke.
- c) Gobernu Organoak baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- d) Legeek, estatutuek eta arauak ezarritako manuak betetzea.

BIGARREN ATALA.- BAZKIDE OSOAK

13. artikulua. Definizioa.

Bazkide osoak izango dira Erakundean sartuta dauden bazkide babesleen langileak, eta Estatutu hauen 14. artikuluaaren arabera, bazkide oso moduan onartu direnak, Prestazioei buruzko Erregelamenduan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Erakundeko bazkide babesleetako batekin funtzionario, lan-kontratudun edo estatutupeko, behin-behineko edo goi-organo edo zuzendaritza harremanean zerbitzura dagoen edozein pertsona, langilea dela hartuko da kontuan.

Jarduneko bazkide osoak izango dira, Erakundeari ekarpenak egiten dizkietenean, Prestazioei buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Etendura-egoeran dauden bazkide oso izango dira, ordea, Erakundeari ekarpen gehiagorik ez egitea erabakitzen badute, bazkide babeslearekiko funtzionario, lan, estatutu edo zerbitzu harremana mantentzen duten kontuan izan gabe.

14. artikulua. Onarpen-baldintzak.

Dagokion eskaera bete ondoren, Erakundean bazkide oso moduan sartu ahal izango dira Erakundearen Gobernu Batzordeak onartutako bazkide babesleen langile guztiak, Prestazioei buruzko Erregelamenduari kalterik egin gabe. Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzuko langileei dagokienean, lan baldintzen edo zerbitzu prestazioen Erregelamenduan eta aplikaziozko Talde Hitzarmenean xedatutakoa ezarriko zaie.

Eskaerei erantzuteko epea hiru hilekoa da gehienez ere, aurkezten direnetik. Epea amaituta erabaki espresik hartzen ez bada, eskaera onartu dela iritziko zaio. Gobernu Batzordeak ezezkoa ematen badio, erabakia arrazoitu beharko du.

Sarrera eskaera bazkide osoa kide den instituzioan entregatu beharko da, eta hark Erakundeari bidali beharko dio hilabeteko epean. Erakundean ere entregatu ahal izango da, eta hark dagokion bazkide babesleari jakinaraziko dio.

Sarrera eskaerak egiazko eta beharrezko informazio guztia jasoko du, eskatzaileari eman dakizkikeen estaldurak zehazteko aintzat hartuta haren egoera pertsonala eta ezintasun iraunkorreko prestazioak jada aitortuta dituen adierazten duen adierazpena, eta hark erantzun beharko du oso-osorik.

Sarrera eskaerak kasu bakoitzean zer dokumentazio erantsi behar den adieraziko du.

Bazkide oso moduan sartzeko eskubidea edozein unetan gauza daiteke, behin instituzioan sartzen denetik, baldin eta funtzionario, estatutu edo lan-harreman finkoa edo zerbitzura dauden langileak badira. Aldi baterako langileek sartzeko eskubidea izango dute kontratatzen diren unean bertan edo haien Talde Hitzarmenean edo Akordioan zehaztutako epea amaitu denean, gehienez ere urtebeteko epean, eta Erakundeari jakinarazi beharko diote hura baliozkotzeko.

15. artikulua. Baja.

Bazkide osoak baja izango dira kasu hauetan:

- Jarduneko bazkideak eta etendura-egoeran dauden bazkideak bazkide pasibo bihurtzea.
- Heriotza.
- Kanporatzea erabaki izana, Estatutu hauen VI. Kapituluari aurreikusitakoaren arabera.
- Erakundea deuseztatzea eta desegitea.
- Lanpostua utzi ondoren, haien eskubideak Lehentasunezko Borondatezko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko beste Erakunde batera eramatea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

16. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Sarrera eskaeraren bidez, eta Erakundeak onartu ostean, bazkideak bere gain hartuko ditu Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan aitortutako eskubideak eta betebeharrak, eta horiek berritzeko erabakietatik eratorritakoak ere bai, bereziki Elkarkidetzaren ordezkari- eta erabakitze-organoen bidez taldean erabakiko diren ekarpenen eta prestazioen erregimenari dagokionez.

Bazkideek haien partaidetza sozialetik eta ekonomikotik eratorritako eskubide eta betebeharrak dituzte:

16.1. Eskubideak:

- a) Batzar Nagusiko bileretan parte hartzea Estatutu hauen III. Kapituluari aurreikusitako moduan.
- b) Gobernu Organoen karguetarako hautatzea eta hautatuak izatea Estatutu hauen III. Kapituluari ezartzen den sistemaren bidez.
- c) Erakundean duten egoera zehatzaren berri izatea. Halaber, Erakundeari buruzko informazioa eskatu ahal izango dute, bai idatziz bai ahoz, eta Gobernu Batzordeak ezingo dio

uko egin, Erakundearen interes soziala estutasunean jartzen ez badu. Informazioa bitarteko telematikoen bidez emango da, Erakundearen web-orrian igota (www.elkarkidetza.eus), posta elektronikoz edo ohiko postaz bidaltzeko eskaera egin ezean. Hala ere, Batzar Nagusirako erabakien kasuan, baliteke bestelakorik ezartzea.

d) Erakundeko partaide izateari eta egoera partikularrari buruzko ziurtagiria eskatzea.

e) Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan ezarritako prestazioak jasotzea.

f) Bazkideak bere eskubide ekonomikoak Lehentasunezko Enpleguko Borondatezko beste Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batera eraman ditzake babestutako kontingentziaren bat gertatu aurretik eta soilik haren instituzioan baja izan bada.

g) Beste Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batean aitortu zaizkion eskubide ekonomikoak Elkarkidetza Lehentasunezko Enpleguko BGAEra eramatea, Gobernu Batzordeak ezarritako baldintzen arabera.

h) Legezko arauetan, Estatutu hauetan eta Erregelamenduan aitortzen zaizkion gainontzekoak.

16.2. Betebeharrak:

a) Haren kargura egindako ekarpenak gauzatzea.

b) Haren datu pertsonalen eta familiarren aldaketen berri ematea bi hileko epean aldaketa horiek ematen direnetik, eta Erakundeak eskatutako datuak eguneratzea haien eskubideak gauzatu eta behar bezala funtziona dezaten.

c) Erakundearen Gobernu Organoak baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.

d) Legeek, estatutuek eta arauak ezarritako manuak betetzea.

HIRUGARREN ATALA.- BAZKIDE PASIBOAK ETA PERTSONA ONURADUNAK

17. artikulua. Definizioa.

Pertsona fisikoak Erakundearen bazkide pasiboak izango dira, Erakundearen Estatutuek eta Erakundearen Prestazioei buruzko Erregelamendua prestazio horiek jasotzeko eskubidea aitortzen dietenean.

Onuradun izango dira hildako bazkide pasibo edo bazkide oso baten kausadunak, Erakundearen aurrean eskubide ekonomikoen hartzekodun bihurtzen direnean, Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan ezarritako lehentasunaren arabera.

18. artikulua. Izaera lortzea.

Bazkide pasibo edo pertsona onuradun izango dira, dagokion prestazioa eragin duen gertaera eman denean eta Erakundearen Gobernu Batzordeak horrela aitortu dituenean.

19. artikulua. Baja.

Bazkide pasiboak eta pertsona onuradunak baja izango dira arrazoi hauengatik:

- Prestazioa amaitzea.
- Heriotza.
- Kanporatzea erabaki izana, Estatutu hauen VI. Kapitulan aurreikusitakoaren arabera.
- Erakundea deuseztatzea eta desegitea.

20. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Bazkide pasiboek eta pertsona onuradunek haien eskubide sozial eta ekonomikoetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak dituzte:

20.1. Eskubideak:

- a) Prestazioak jasotzea Estatutuek eta Prestazioei buruzko Erregelamenduak ezarritakoarekin adostasunean.
- b) Erakundearen duten egoera zehatzaren berri izatea. Halaber, Erakundeari buruzko informazioa eskatu ahal izango dute, bai idatziz bai ahoz, eta Gobernu Batzordeak ezingo dio uko egin, Erakundearen interes soziala estutasunean jartzen ez badu. Informazioa bitarteko telematikoen bidez emango da, Erakundearen web-orrian igota (www.elkarkidetza.eus), posta elektronikoz edo ohiko postaz bidaltzeko eskaera egin ezean. Hala ere, Batzar Nagusirako erabakien kasuan, baliteke bestelakorik ezartzea.
- c) Erakundeko kide izateari eta haren egoera bereziari buruzko ziurtagiria eskatzea.
- d) Haren eskubide ekonomikoa lekualdatzea, Erakundearen deuseztatu edo desegiten bada bakar-bakarrik, 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- h) Legezko arauetan, Estatutu hauetan eta Prestazioen erregelamenduan aitortzen zaizkion gainontzekoak.

20.2. Betebeharrak:

- a) Prestazioa emateko eskatzen zaion dokumentazio guztia bidaltzea.

- b) Haren datu pertsonalen eta familiarren aldaketak jakinaraztea, aldaketa horiek gertatu eta bi hileko epean, eta Erakundeak eskatutako datuak eguneratzea, euren eskubideak gauza daitezen eta behar bezala funtziona dezaten.
- c) Erakundearen Gobernu Organoak baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- d) Legeek, estatutuek eta arauk ezarritako manuak betetzea.

LAUGARREN ATALA.- ARAU ARRUNTAK

21. artikulua. Eskubideak gauzatzea eta betebeharrak haustea.

Erakundearen elementu pertsonal bakoitzari dagozkion eskubideak gauzatzeko, ezinbestekoa da harekiko betebeharrak egunean edukitzea.

Aipatu diren taldeek Estatutuetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, Estatutu hauen VI. Kapituluan ezarritako erantzukizunez gain, betebeharrak haustetik eratorritako egintzen eta ondorioen gaineko erantzukizun osoa izango dute.

Bazkide osoa, bazkide pasiboa edo pertsona onuraduna da prestazio horiek sortzeko eman diren datuak egiazkoak direla bermatzeko arduraduna.

III. KAPITULUA ERAKUNDEAREN GOBERNU ORGANOAK

22. artikulua. Gobernu-organoak.

Batzar Nagusiak arautuko du Erakundea, eta Gobernu Batzordeak administratuko eta ordezkaturiko du.

LEHENENGO ATALA.- BATZAR NAGUSIA

23. artikulua. Osaera eta banaketa.

Batzar Nagusia da organo gorena, lau urterako hautatzen da, eta Erakundearen helburu soziala islatzen du. Ehun ordezkari eratzten dute, haien bazkideen izenean, honela banatuta:

- Bazkide babesleak: berrogeita hamar ordezkari honela banatuta:
 - hogeita hamar ordezkari Euskadiko Udalen Elkartearen izenean (EUDEL).
 - bost ordezkari Euskadiko Foru Aldundi bakoitzaren izenean.
 - Toki eta Foru Administrazioak ez diren taldeetako bost ordezkari, bazkide osoen arabera proportzionalki banatuta, eta atxikitako taldeen garrantzia ekonomikoaren arabera haztatuta.
- Bazkide osoak: berrogeita hamar ordezkari. Horien banaketa zentral sindikalek sindikatu etako hauteskundeetan lortzen dituzten ordezkarien kopuruarekiko proportzionala izango da, sartutako instituzioek duten garrantzia ekonomikoaren arabera haztatuta. % 5eko muga kuantitatiboa gainditzen ez dutenak kanpoan geratuko dira, eta lortutako postuak gainontzeko ordezkari sindikalen artean banatuko dira.

Ordezkarri bakoitzak boto bakarria izango du.

24. artikulua. Ordezkarriak izendatzea eta ordeztea.

24.1. Aurreko artikuluan aipatutako instituzio publikoek eta zentral sindikalek dagozkien ordezkariak izendatuko dituzte, eta Gobernu Batzordeari jakinaraziko diote Batzar Nagusia berri behar den urtearen aurreko abenduaren 31ren aurretik.

Gobernu Batzordeak izendatuko du zentral sindikal bakoitzari dagokion ordezkari kopurua, Batzar Nagusia berri behar den urtearen aurreko abenduaren 31ren aurretik, urte bereko irailaren 30ean sindikatu etako hauteskunderi buruz dauden datuak oinarri hartuta.

Adierazitako epeetan ordezkarien izendapenak jakinarazten ez badira, ezarritako ordezkari galduko da, eta Gobernu Batzordeak hutsik geratzen diren leku horiek banatu ahal izango ditu, ordezkariak izendatzeko eta hautatzeko irizpide orokorrak betez.

24.2. Instituzioek edo zentral sindikalek ordezkariak aldatu ahal izango dituzte, eta Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko dizkiete, izendapen berriekin batera. Batzar Nagusiak urtero berretsiko ditu ordezkari horiek.

25. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumenak.

Edonola ere, Batzar Nagusiari dagozkio eskumen hauek:

- a) Erakundearen estatutuak onartzea eta aldatzea.
- b) Gobernu Batzordeko kideak hautatzea, izendatzea eta berritzea.
- c) Gobernu Batzordearen proposamenez, bertako leku hutsak beteko dituzten pertsonak berrestea.
- d) Kanpoko kontu-ikuskaria edo kontu-ikuskaritza hautatzea.
- e) Hala badagokio, Gobernu Batzordearen kudeaketa, kudeaketa-txostena eta urteko kontuak eta indarreko urtearen aurrekontua ontzat ematea.
- f) Erakundea fusionatzea, zatitzea, federatzea eta desegitea.

Halaber, Batzar Nagusiaren eskumenekoa da Gobernu Batzordeak hark erabakitzeko aurkezten dizkion gaiak eta gai-zerrendan jasota datozenak.

26. artikulua. Batzar motak.

Batzar Nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

Ohiko Batzar Nagusia urtean behin bilduko da, ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo lau hilabeteetan, honako alderdi hauek aztertzeko, eta, hala badagokio, onartzeko: Gobernu Batzordearen kudeaketa, kudeaketa-txostena, urteko kontuak, uneko urtearen aurrekontua eta Batzar Nagusiaren eskumenekoak den eta deialdiaren gai-zerrendan datorren beste edozein gai.

Gobernu Batzordea deitzen den guztietan Ezohiko Batzar Nagusia bilduko da, bai haren ekimenez bai Batzarreko ordezkarien % 20ak hala eskatuta.

27. artikulua. Batzarra deitzea eta eratzea.

27.1. Gobernu Batzordeak deituko du Batzar Nagusia, postaz edo posta elektronikoz, Batzar Nagusiko ordezkari bakoitzak jakinarazitako posta arrunteko edo posta elektronikoko helbidera bidalita, hamar egun balioudun lehenago, behintzat, eta bileraren data baino hogeita hamar egun natural lehenago, gehienez. Jakinarazpen horretan, Batzar Nagusia non, noiz eta zer ordutan egingo den adieraziko da, eta horrekin batera, gai-zerrenda eta korporazioaren web-orritik (www.elkarkidetza.eus) edukiak eztabaidatzeko eta onartzeko dokumentazio-euskarrira sartzeko jarraibideak erantsiko dira. Informazio hori postaz edo posta elektronikoz bidali izango zaie hala eskatzen duten ordezkariari.

Batzarreko ordezkariak gai-zerrendari punturen bat gehitzeko eskubidea dute, boto guztien ehuneko hamarra hartzen badute eta eskaera lau egun lehenago egiten badute, Gobernu Batzordearen presidenteari idazkia bidalita. Batzar Nagusian, ezingo dira gai-zerrendan idatziz jasota geratu ez diren gaiak jorratu.

27.2. Batzar Nagusia baliozkoa dela iritziko zaio, lehenengo deialdira ordezkarien erdia gehi bat bertaratu badira edo ordezkatuta badaude, eta ordu erdi beranduago egingo den deialdian, berriz, bertaratzen direnen kopurua edozein dela ere.

28. artikulua. Batzar Unibertsala.

Hala eta guztiz ere, orokorrean, Batzar Nagusia baliozkoa dela iritziko zaio, bazkideen izenean hautatutako ordezkari guztiak batzarrera bertaratzen direnean edo ordezkatuta daudenean, eta bertaratuek saioa aurrera eramatea eta jorratu beharreko gaiak aho batez onartzen dituztenean.

29. artikulua. Bertaratzea eta ordezkaritza.

29.1. Batzarrean, beste ordezkari bat ari daiteke bazkideak ordezkatzeko izendatu diren ordezkarien izenean. Ordezkaritza idatziz jakinarazi beharko da, eta, kasu berezietan, batzar bakoitzerako.

29.2. Gobernu Batzordeko kideek Batzar Nagusietara bertaratu beharko dute, eta Gobernu Batzordeko edozein kideri eska diezaiokete haien izenean jardun dadila.

29.3. Gobernu Batzordearen iritziz eta eskakizunez, erakundearen arloak ongi funtzionatzearen erantzule diren zuzendariek, gerenteez, teknikariek eta gainontzeko pertsonak Batzar Nagusiko bileretara gonbidatu moduan bertaratzeko aukera dute, Gobernu Batzordeak baimena emanaz gero, erakundearekin lotutako kontuak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko behar den informazioa argitzeko, hedatzeko edo zehazteko helburuarekin.

Gonbidatuek Batzar Nagusiko bileretan hitza izango dute, baina botorik ez.

30. artikulua. Batzar Nagusiaren presidentea eta idazkaria.

Gobernu Batzordearen presidentea, edo, horrelakorik ezean, presidenteordeak zuzenduko du Batzar Nagusia, eta Gobernu Batzordeko idazkariak, eta, horrelakorik ezean, bildu diren ordezkarien artean saio hasieran hautatzen diren ordezkariak egingo dituzte idazkari-lanak.

Batzarreko presidentea delibramenduak zuzenduko ditu, Batzar Nagusian ordena mantenduko du, eta lege-formalitateak betetzen direla ziurtatuko du.

31. artikulua. Erabakiak hartzea.

31.1. Batzar Nagusian erabakiak hartzeko, botoen erdia gehi bat beharko dira. Orokorrean, bozketak izendunak izango dira, erakundearen interesarengatik Batzar Nagusiko gai-zerrendan isileko bozketa ezartzen ez bada, edo bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen ehuneko hamarrak horrela eskatzen ez badu.

31.2. Salbuespenez, Erakundea fusionatu, zatitu eta desgiteari dagokionez estatutuetan aldaketak egitea erabakitzeko, Batzar Nagusiaren botoen bi herenek osatutako gehiengo beharko da.

31.3. Erakundeko bazkide guztiek Batzarrean hartutako erabakiak bete beharko dituzte, erabakiei kontra egiteko VI. Kapituluari xedatutakoa alde batera utzita.

32. artikulua. Erakundearen erabakiak aktan jasotzea.

32.1. Batzarreko erabakiak idazkariak idatziko duen eta Akten Liburura transkribatuko duen aktan jasoko dira.

32.2. Aktak bertaratuen zerrenda jasoko du. Akta Batzarrean bertan onar daiteke, saioa amaitu ostean, edo, bestela, hogeita hamar eguneko epean, presidentek eta Batzarrean bertan izendatutako bi kidek (bazkide babesleen izenean bata eta bazkide osoen izenean bestea) onar dezakete, eta idazkariarekin batera sinatuko dute.

32.3. Bilerako idazkariak sinatuko du akta, presidentearen oniritziarekin.

32.4. Batzar Nagusiko erabakiak Gobernu Batzordearen idazkariak presidentearen oniritziarekin igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, eta Gobernu Batzordearen presidentek egikaritu beharko ditu erabaki horiek, beste norbait eskuordetzen ez badu.

33. artikulua. Erakundearen erabakiak jakinaraztea.

Bazkideei eta onuradunei Erakundeko Batzar Nagusian hartutako erabakien berri emango zaie, paperezko formatuan, bakoitzari idazkia bidalita 30 eguneko epean. Erabaki horiek Erakundearen web-orrian ere argitaratuko dira (www.elkarkidetza.eus). Batzar Nagusian hartutako erabakien jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez jaso nahi dituzten bazkideek hala eskatu beharko diote Erakundeari, eta haien helbide elektronikoa adierazi beharko diote Batzar Nagusia egin baino lehen.

BIGARREN ATALA – GOBERNU BATZORDEA

34. artikulua. Izendapena eta osaera.

34.1. Gobernu Batzordeak gauzatuko du Erakundearen zuzeneko eta berehalako gobernamentua. Batzar Nagusiak Batzordearen kideak hautatuko ditu bazkideen izenean aukeratutako ordezkarien artean, jarraian zehazten den banaketaren arabera.

34.2. Gobernu Batzordeak hamasei kide izango ditu, honela banatuta:

- Bazkide babesleak: zortzi kide honela banatuta:
 - Euskal Foru Aldundi bakoitzeko kide bat.
 - Lau ordezkari, Euskadiko Udalen Elkartearen izenean (EUDEL).
 - Gainontzeko taldeak ordezkatzeko kide bat, Gobernu Batzordearen kide instituzionalek ezarritako irizpideen arabera izendatuko dena.

Batzar Nagusiko bazkide babesleen ordezkariak izendatuko dituzte.

- Bazkide osoak: zortzi kide, Batzar Nagusiaren bazkide osoen ordezkariekin proportzionaltasuna mantentzeko moduan banatuta. Batzar Nagusiko bazkide osoen ordezkariak izendatuko dituzte.

Batzar Nagusiak Gobernu Batzordearen kide kopurua eta haien banaketa alda ditzake, aurrerago instituzio berriak sartzen badira. Edonola ere, bazkide osoen ordezkariak aurreko paragrafoan ezarritako banaketa mantenduko du.

Nolanahi ere, Gobernu Batzordeko kideen osieran, bermatuko da gizonak eta emakumeak ordezkariak orekatuak dutela, Erakundearen duten presentziaren ehuneko aintzat hartuz.

35. artikulua. Karguak izendatzea eta ordezkariak eta horien iraupena.

35.1. Gobernu Batzordeko kideak lau urterako izendatuko dira, berriz hauta daitezke eta presidentea, presidenteordea eta idazkaria izendatu beharko dituzte.

Bazkide babesleen ordezkariak izendatuko dute presidentea, eta haietako bat izango da.

Bazkide osoak izendatuko dituzte presidenteordea eta idazkaria, eta haietako bat izango da.
35.2. Instituzio edo zentral sindikalek kideak ordeztu ahal izango dituzte eta hutsik geratzen diren lekuak Estatutu hauen 34. artikuluan ezarritako moduan bete beharko dira. Dena dela,

Gobernu Batzordeak instituzioak edo sindikatuak egindako izendapen berria behin-behinean onartu ahal izango du.

36. artikulua. Ordainsaria.

Gobernu Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasotzen egotzita dituzten eginkizunak gauzatzeagatik.

Hala ere, Erakundeari zerbitzuak ematen dizkieten Gobernu Batzordeko kideek ordainsaria jasoko dute Erakundean egindako edozein motako lanengatik edo erantzukizunengatik. Kontzeptu horrengatik jasotako ordainsaria egindako lanaren arabera izango da, eta ez Gobernu Batzordeko kide izatearen ondoriozkoa, gauza erabat bereziak baitira. Dena dela, ordainsari horiek Erakundearen urteko aurrekontuari dagokion partidan jasoko dira, eta, ondorioz, Batzar Nagusiak urtero onartu beharko ditu.

37. artikulua. Bilera motak.

Gobernu Batzordeko bilerak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke, eta presidenteak deituko ditu.

Ohiko bilerak, orokorrean, hiru hilez behin egingo dira.

Ezohiko bilerak presidentearen ekimenez edo kideen herenak hala eskatzen duenean egingo dira, eta, kasu horretan, ezingo dira urtean sei deialdi baino gehiago egin, ekitaldi bakoitzeko.

38. artikulua. Gobernu Batzordea deitzea eta eratzea.

38.1. Presidenteak telematikoki deituko ditu bilerak, eta, horretarako, Gobernu Batzordeko kide bakoitzari posta elektronikoko bidez idatzizko komunikazioa eta dagokion gai-zerrenda bidaliko dizkio, bileraren eguna baino astebete lehenago behintzat.

Kideen herenak gai-zerrendan punturen bat sartzeko eskaera egin dezake, eta, horretarako, presidenteari idatzia bidali beharko diote, bilera-eguna baino lau egun lehenago.

38.2. Gobernu Batzordea baliozki eratu dela jotzeko, kideen erdia gehi bat bertaratu beharko dira.

38.3. Gobernu Batzordeko kide bakoitzak Gobernu Batzordeko beste kide bati haren izenean jarduteko eska diezaioke, idatziz, eta batzar bakoitzerako bereziki.

38.4. Gobernu Batzordera joateko, bilera egingo den lekura joan edo bitarteko telematikoak erabili ahal izango dira, deialdian hala adierazita. Azken kasu horretan, beharrezkoa izango da bertaratutakoak bideokonferentzia-sistemen, konferentzia anitzekoen edo bestelako

bitarteko telematikoen bidez konektatuta egotea, bertaratutakoak ezagutu eta identifikatzeko, eta haien artean etengabe komunikatzeko, bi noranzkoetan eta denbora errealean.

38.5. Gobernu Batzordea telematikoki egin ahal izango da, deialdian aldeztu aurretik adierazita.

Bertaratutakoak bilera bakar batera joan direla ulertuko da, bilera hori, deialdian adierazitako lekuan izan dela kontsideratuz.

Nolanahi ere, beharrezkoa izango da bertaratutakoak bideokonferentzia-sistemen, konferentzia anitzekoak edo bestelako bitarteko telematikoen bidez konektatuta egotea, bertaratutakoak ezagutu eta identifikatzeko, eta haien artean etengabe komunikatzeko, bi noranzkoetan eta denbora errealean.

Kasu horretan, presidenteak eta idazkariak 5 eguneko epea izango dute, bilera egiten den egunetik hasita, akta sinatzeko. Akta horretan jaso behar dira akordioak nola hartu diren, Gobernu Batzordeko zein kidek parte hartu duten eta emandako botoak.

39. artikulua. Erabakiak hartzea eta jasotzea.

39.1. Gobernu Batzordeko erabakiak botoen gehiengo sinplearekin hartuko dira.

39.2. Gobernu Batzordeko kide bakoitzak boto bakarra izango du, eta, hala badagokio, eskuordetze bidez ordezkatzen duen beste batzarkideena.

39.3. Batzarreko erabakiak idazkariak idatziko duen Aktan jasota utziko dira, eta akta hori Akten Liburuan transkribatuko du.

39.4. Akta ontzat eman daiteke Batzarra amaitzen denean, edo bestela, Gobernu Batzordearen hurrengo bileran.

39.5. Gobernu Batzordeko bilerako idazkariak sinatuko du akta, presidentearen oniritziarekin.

39.6. Gobernu Batzordearen erabakiak idazkariak presidentearen oniritziarekin igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, eta Gobernu Batzordearen presidenteak egikaritu behar ditu erabaki horiek, eskuordetze berezirik egin ez badu behinik behin.

39.7. Gobernu Batzordeak idatziz eta bilkurarik gabe hartutako erabakiak ere baliozkoak izango dira, baldin eta kideek erabakiak hartzeko modu horren aurka egiten ez badute, ondoren ezartzen diren baldintzak eta prozedura betez.

39.7.1. Baldintzak.

- a. Gobernu Batzordearen erabakiaren xede diren gaietan baiezko botoa, ezezko botoa edo abstentzioa eman ahal izatea.
- b. Gobernu Batzordeko kide guztiek erabakiak idatziz hartzeko adostasuna adieraztea, bilkuraren beharrik gabe.

39.7.1. Prozedura.

39.7.2.1. Gobernu Batzordeak proposatuko die kideei zer gairi buruzko erabakiak hartzea eskatzen dion Gobernu Batzordeari, idatziz eta bilkurarik gabe, eta, egoki iritziz gero, gai bakoitzari buruzko erabaki-proposamena egingo du.

Horretarako, alderdi horiek jasotzen dituen idatzizko komunikazio bat bidaliko die kide bakoitzari, gai bakoitzari buruzko beharrezko informazio guztiarekin batera.

39.7.2.2. Jakinarazpen horrek epea adieraziko du, gehienez ere 10 egunekoa, kideek erabakiak hartzeko sistema horrekin ados dauden ala ez adieraz dezaten eta beren botoa eman dezaten.

39.7.2.3. Epe horretan kideren batek ez badu bere adostasuna adierazten, prozedura indargabetu egingo da, eta bazkide guztiek adostasuna adierazi badute, prozedurak aurrera jarraituko du.

Kideren batek proposatutako gai guztiei edo batzuei buruzko botoa adierazteak, prozedurarekin ados dagoela esan nahiko du.

39.7.2.4. Aplikatzekoa den legeriak ezarritako bidez gain, erabakiak idatziz eta bilkurarik gabe hartzeko aurreikusitako komunikazioak idatzizko euskarrian, euskarri elektronikoan edo urrutiko beste edozein komunikazio sistema erabiliz egin ahal izango dira, baldin eta komunikazio hori egiten duen subjektuaren identitatea eta edukiaren osotasuna behar bezala bermatzen badira.

40. artikulua. Gobernu Batzordeko kideen eginkizunak eta ahalmenak.

40.1. Presidentea.

Presidenteak ahalmen hauek edukiko ditu:

- a) Gobernu Batzordea ordezkatzea.
- b) Batzar Nagusiko eta Gobernu Batzordeko bilerak zuzentzea.
- c) Gobernu Batzordeko bileren gai-zerrenda eratzea eta deialdia egitea.

- d) Erakundearen funtzio administratiboak, teknikoak eta finantzarioak zuzentzea.
- e) Gobernuak agindutako zuzendaritza-, ikuskatze- eta kudeaketa-funtzioak.
- f) Gobernu Batzordeak artatu ezin dituen bazkideen kexak eta erreklamazioak ebaztea.
- g) Prestazioak jasotzeko eskubidea aitortzea, eta Gobernu Batzordeari haien berri ematea, aitopen horren ostean egiten den lehenengo bileran berronesteko.
- h) Estatutu hauetatik eta gainontzeko lege-xedapenetatik eratorritako lege-eginkizunak.

40.2. Presidenteordea.

Presidenteordeak funtzio hauek edukiko ditu:

- a) Presidente ordeztea hura bertaratzen ez denean, gaixo dagoenean edo hala beharrezkoa den edozein egoeratan.
- b) Gobernu Batzordeak agintzen dizkion bezainbeste eginkizun.

40.3. Idazkaria.

Idazkariak funtzio hauek edukiko ditu:

- a) Erakundearen gobernu-organoetako aktak idaztea, presidentearen oniritziarekin.
- b) Erakundearen gobernu-organoetako erabakiak egiaztatzea, presidentearen oniritziarekin.
- c) Erakundearen gobernu-organoetako erabakiak jasoko dituen Akten Liburua eramatea.

40.4. Kideak.

Kideek funtzio hauek dituzte:

- a) Agindutako eginkizunak burutzea, Gobernu Batzordearen bileretara bertaratzea, deliberamenduetan eta horien osteko erabakietan parte hartzea eta Erakundeko karguei beharrezko laguntza eskaintzea.

40.5. Presidente, Presidenteordea eta/edo Idazkaria ez egotea:

Gobernu Batzordeko presidentea eta presidenteordea Gobernu Batzordeko bilera jakin batera joaten ez badira, bileran dauden kideek bertaratutako artetik, bilera horretarako bakarrik, presidente kargua izango duen pertsona aukeratu beharko dute.

Gobernu Batzordeko idazkaria Gobernu Batzordeko bilera jakin batera joaten ez bada, bileran dauden kideek bertaratutakoen artetik, bilera horretarako bakarrik, idazkari kargua izango duen pertsona aukeratu beharko dute.

41. artikulua. Gobernu Batzordeko kideen betebeharrak.

Gobernu Batzordeko kide bakoitzak betebeharrak hauek ditu:

- a) Erakundea arduraz kudeatzea eta Batzar Nagusiari kontuak ematea.
- b) Gobernu Batzordeak, haren karguagatik, ezagutzen dituen arloetan sekretu profesionala mantentzea.
- b) Batzar Nagusiko eta Gobernu Batzordeko bileretara bertaratzea. Hiru bileretara arrazoirik gabe bertaratzen ez bada, sei hilabetez etendura-egoeran egongo da. Berriz ere baldintza hori hautsiko balu, kargua behin betiko kenduko zaio, Batzordeak hala zehazten eta erabakitzen duenean, eta ordezkatzeko duen instituzioari edo sindikatuari jakinaraziko zaio, behar diren ondoretarako.

42. artikulua. Gobernu Batzordearen ahalmenak.

Legez edo Estatutu hauen arabera Batzar Nagusiari dagozkion ahalmenak gauza ditzakeen arren, Gobernu Batzordeari eginkizun hauek dagozkio:

- 42.1. Erakundearen gobernuak, administrazioa eta ordezkaritza.
- 42.2. Prestazioak kobratzeko eskubidea aitortzea, nahiz eta eskuordetzeak egin.
- 42.3. Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea, eta horiekin batera, urte anitzeko plan estrategikoa eta kudeaketa-plana eta urteko aurrekontua Batzar Nagusian aurkeztea, hark onar ditzan.
- 42.4. Erakundearen kaudimena eta oreka finantzarioa zaintzea.
- 42.5. Funtsak arretaz, profesionaltasunez eta modu arduratsuan inbertitzea. Helburu horietarako, Erakundearen inbertsio-plana onartuko du.
- 42.6. Erakundearen kudeaketa eta administrazioa eta haren gainbegiratzea kontratatzea. Zeregin horien artean daude, besteak beste, erakundearen helburua garatzeko beharrezkoak diren lankidetzak teknikoak izendatzea, berrestea edo amaitzea.
- 42.7. Indarrean dauden eta aitortzeko prozesuan dauden prestazioek arreta egokia jasoko dutela aktiboki kontrolatzea.

42.8. Batzar Nagusiari Estatutu hauetan egin beharreko aldaketak proposatzea, eta Prestazioei buruzko Erregelamendua onartzea eta aldatzea

42.9. Ekarpenen aldaketa behin-behinean onartzea eta Batzar Nagusiari alda ditzala proposatzea, dagozkion Talde Hitzarmentan edo Akordioetan euskal instituzio, erakunde edo sozietate publiko bakoitzean ezarritakoarekin adostasunean.

42.10. Bazkideak onartzea.

42.11. Batzar Nagusiko bilerak deitzea, haien gai-zerrenda zehaztea eta haren erabakiak burutzea.

42.12. Estatutuak eta Prestazioei buruzko Erregelamendua betetzea eta betearaztea. Helburu horretarako, Estatutu hauek eta Prestazioei buruzko Erregelamenduak planteatzen dituzten zalantzei erantzutea.

42.13. Erakundearen kudeaketan laguntzeko Ordezkaritza Batzordeak edo Organoak ezartzea.

42.14. Zehapen ekonomikoen zenbatekoa zehaztea, falta larriak edo oso larriak egiteagatik.

42.15. Inbertsio-printzipioen idatzizko adierazpena prestatzea, onartzea, eta, aldian-aldian, berrikustea.

42.16. Lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planen integrazioa onartzea eta haien prestazioen erregelamenduak eta aldaketak baliozkotzea eta berrestea.

42.17. Estatutu hauen arabera planteatzen diren helegiteak eta erreklamazioak ebaztea.

42.18. Kideei prestakuntza egokia ematen zaiela zaintzea.

42.19. Aplikaziozko araudia betetzea eta betearaztea, bereziki zerga-sistemari eta kapital-zuriketaren prebentzioari buruzkoa.

42.20. Bazkideen interesen arabera jardutea, zuhurtziaz, ezagueraz eta modu arduratsuan.

42.21. Arriskuen kudeaketarekin, barne-ikuskapenarekin, eta, hala badagokio, funtzio aktuariarekin eta kanporatzearekin zerikusia duten politika idatziak hartzea, aplikatu daitezkeen funtsezko araudia betez.

42.22. Administrazioako gastuen zenbatekoa zehaztea.

Gobernu Batzordeak erabaki espres bidez zerrendatutako eskumenak eskuorde diezazkioke presidenteari, puntu hauetan jasotakoak izan ezik: 42.3, 42.5, 42.8, 42.9, 42.11, 42.12, 42.13, 42.14, 42.15, 42.21 eta 42.22.

HIRUGARREN ATALA.- GOBERNU ORGANOEEN ERANTZUKIZUNAK

43. artikulua. Erantzukizun administratiboa.

Estatutu hauetan ezarritakoa ez betetzeagatik Erakundearen aurrean eman daitezkeen erantzukizun zibilak eta penalak alde batera utzita, gobernu-organoetako kideek, dolu edo zabarkeria larriz, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arau erregulatzailaetan ezarritakoa hausten duten jarduerak egikaritzen edo ahalbidetzen badituzte, erantzukizun administratibo zigorgarria izango da hori, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean ezarritakoaren arabera.

Erantzukizun hori betearazteko arauak ezarriko duten zehapen-prozedura Euskal Autonomia Erkidegoan une horretan indarrean dagoena izango da.

IV. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA ONDAREZKOA

LEHENENGO ATALA.- ERAKUNDEAREN FINANTZAZIOA

44. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

Erakundearen baliabide ekonomikoak honela osatuta daude:

- a) Bazkide babesleek eta bazkide osoek egin behar dituzten ekarpenak, Institutio bakoitzari dagozkion Talde Hitzarmenak edo Akordioak betez.
- b) Haien erreserba-inbertsioetik lortutako mozkinak.
- c) Beste bidezko diru-sarrera batzuk.

45. artikulua. Administrazio-gastuak.

Gobernu Batzordeak urtero kalkulatzeko dituzten administrazio-gastuak. Gastu horiek ez dute erregelamenduz ezarritako gehienezko muga gaudituko, eta legean eta aplikaziozko erregelamenduan ezarritako parametroekin kalkulatuko dira.

46. artikulua. Kontabilitatea.

Erakundea arduratuko da kontabilitateaz. Horretarako, aintzat hartuko ditu araudi espezifikoak, eta, horrelakorik ezean, Aseguru Erakundearen Kontabilitate Planean, Merkataritza Kodean eta Kontabilitate Plan orokorrean ezarritakoa eta merkataritza-legediak kontabilitatearen arloan ezarritako beste xedapenak.

Halaber, Merkataritza Kodeak eta aplikaziozkoak diren gainontzeko xedapenek exijitzen dituzten kontabilitate-liburuak eraman behar dira.

Erakundearen urteko kontuen kanpo-ikuskapena egin behar da, eta kudeaketa-txostena ere bai, Kontu-ikuskapenari buruzko Legeak eta haren garapeneko arauak ezarritako baldintzetan.

BIGARREN ATALA FUNTS ETA BERME FINANTZARIOAK

47. artikulua. Motak.

Irizpide ekonomikoei, finantzarioei eta aktuariari erantzunez eta kaudimenaren eta oreka finantzarioaren printzipioen barruan, Erakundeak, bazkideen eskubideak bermatze aldera, honako funts eta berme finantzarioak sortu eta mantenduko ditu:

a) Mutuaren funtsa.

Erakundearen berezko funtsak dira. 9.015.183,27 euroko behin betiko zenbatekoa dute, erakundearen ekitaldien soberakinen kargura, eta ordainduta daude guztiz.

b) Segurtasun-marjina

Erakundearen berezko funtsak dira, eta, aplikaziozkoa den funtsezko arauan ezarritakoa betez, urteko zuzkidurarekin eratuko dira, soberakinen kargura.

c) Kaudimen-funtsa.

Erakundearen berezko funtsak dira, eta une bakoitzean eragiten dieten lege-baldintzak bete behar dituzte. Batzar Nagusiak zehaztuko du horien zenbatekoa, lege-mugen barruan eta Gobernu Batzordearen proposamenez, prestazioen kalkuluetan erabilitako hipotesi aktuarioetan etorkizunean gerta daitezkeen aldaketei aurre egiteko helburuarekin.

d) Hornidura teknikoak

Hornidura teknikoak Erakundearen obligazioen balioa dira. Kapitalizazio indibidualako sistema finantzarioen eta aktuariaren bidez kalkulatzen dira.

Obligazioa kalkulatzen den unearen arabera, hauek bereiz ditzakegu:

- Jardunean eta etendura-egoeran dauden bazkide osoentzako aktiboen hornidura teknikoak, zeinak egindako aurrezpen-ekarpenekin eta horiei, behin gastuak kenduta, egotz dakizkieken inbertsioen emaitzekin eratuiko diren.
- Bazkide pasiboentzako eta pertsona onuradunentzako pasiboen hornidura teknikoak, zeinen zenbatekoa etorkizuneko ordainketen egungo balioa izango den.

e) Kasu bakoitzean arauzkoak diren erreserbak eta hornidurak.

Gobernu Batzordearen proposamenez, Batzar Nagusiak beste erreserba batzuk ezar ditzake, Erakundearen funtzionamendu ona bermatzeko eta prestazio berriak garatzeko.

HIRUGARREN ATALA ESKUBIDE EKONOMIKOAK

48. artikulua. Eskubide ekonomikoak.

Eskubide ekonomikoak prestazioak ordaintzeko sortutako kapitala dira, eta prestazioa ematen den unean prestazioa zenbatekoa izango den ezartzen dute.

Eskubide ekonomikoak aurrezkiarekin, eta, hala badagokio, kapital gehigarriarekin eratzen dira, Prestazioei buruzko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

V. KAPITULUA. EKARPENAK ETA PRESTAZIOAK

LEHENENGO ATALA.- EKARPENAK

49. artikulua. Ekarpinak.

Langileek zein instituzioek Elkarkidetzak onartutako eta argitaratutako urteko oinarriaren arabera egingo dituzte ekarpinak. Ekarpinak 14 ordainketatan banatuta, Toki eta Foru Administrazioaren Erabaki Institutuzional-Sindikala betez, eta Erakundeari atxikitako

gainontzeko instituzioen Talde Akordioetan edo Hitzarmenetan ezarritakoa aparte utzita. Halaber, Erakundeari ekarpenen berri eman beharko zaio, baliozkotzat eman ditzan.

Urtero, oinarriaren zenbatekoa igoko da, eta horien balioa, bi dezimaletan biribilduta, ezingo da aurreko urtekoa baino txikiagoa izan.

EAEko KPIak uneko urteko azaroaren eta aurreko urteko azaroaren artean izandako igoera aplikatuko zaie oinarriari.

Bazkide babesleen eta bazkide osoen ekarpenak instituzio bakoitzari dagozkion Talde Hitzarmenetan edo Akordioetan zehaztuko dira.

Bazkidearen ekarpenak eta Instituzioak egotzitako zenbatekoak bat etorri behar dira, hau da, ekarpenak paritarioak izango dira, Instituzio bakoitzaren Talde Akordioan edo Hitzarmenean ezarritakoaren eta borondatezko ekarpeni buruz hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera. Ekarpen horien berri eman beharko zaio Erakundeari, baliozkotzat eman ditzan.

Edonola ere, ekarpenen % 92 aurrezkirako izango da, eta geratzen den % 8, berriz, heriotza eta ezintasun iraunkorreko kapital gehigarria eratzeko erabiliko da.

Erakundean alta egiten den egunean bertan egin beharko da ekarpena.

Bazkide babesleak eta bazkide osoak kuotak ordaintzeari utziko diote, dagokion kontingentzia eragiten den unean.

Bi hilabeteren ostean ekarpenak ordaindu ez badira, arriskuen estaldurak etengo dira, Erakundeak estaldura horiek jarraitzea justifikatzen duten ezohiko egoerak onartzen ez baditu.

Ekarpena ordaintzen ez bada, ez da kapital gehigarrirako eskubiderik sortuko. Ekarpena ordaintzen den bitartean, kapital gehigarrirako eskubidea sortuko da, alta egiteko unean espresuki kanpo geratu ez diren arriskuen kasuan eta, betiere, dagokion prestazioa bost urteko epean tramitatzen bada, erakunde publiko eskudunak ezintasun iraunkorra behin betiko onartzen duenetik edo heriotza gertatu denetik zenbatzen hasita.

50. artikulua. Borondatezko ekarpenak.

Aurretiaz dena delakoa ezarri arren, erretiratzean Elkarkidetzan 40 urte baino gutxiagoz ekarpenak egin dituzten, lan-bizitzan zehar ekarpenetan etenaldiak izan dituzten edo ekarpen-oinarria soldata baino txikiagoa daukaten bazkideen kasuan, haien eskubide ekonomikoetan hilero borondatezko ekarpen individuala sartzeko eskaera egin dezakete. Ekarpen hori urteko 4.000 eurokoa izango da gehienez ere.

Borondatezko ekarpen hori bazkidearen konpromiso indartutzat joko da, urtez urte aldatu ahal izango dute soilik. Bestalde, oinarriari aplikatutako iguera berarekin areagotuko da eta aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera banatuko da.

Edonola ere, ekarpenen % 92 aurrezkirako izango da, eta geratzen den % 8, berriz, heriotza eta ezintasun iraunkorreko kapital gehigarria eratzeko erabiliko da.

BIGARREN ATALA.- PRESTAZIOAK OROKORREAN

51. artikulua. Prestazio motak.

Erakundeak prestazio hauek emango ditu:

- a) Erretiroa.
- b) Ezintasun iraunkorra.
- c) Alarguntza.
- d) Zurztasuna.
- e) Heriotza.
- f) Gaixotasun larria.
- g) Iraupen luzeko langabezia.

52. artikulua. Prestazioen erregimena.

Prestazioak Eskubide Ekonomikoaren arabera kalkulaturako errenta edo kapital baten bidez kobratuko dira, eta, hala badagokio, prestazioa ematen den unean dagoen kapital gehigarria kobratuta, Prestazioei buruzko Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

Prestazioa kapital moduan jaso ahal izateko, Erregelamendu honen arabera jaso daitekeen errenta ezin daiteke Gobernu Batzordeak onartutako gutxieneko 111 euroko pentsiora iritsi.

53. artikulua. Prestazioen bateragarritasuna.

Erakundearen prestazioak bazkide pasiboek eta pertsona onuradunek beste erakunde pribatu eta publiko batzuen edo Gizarte Segurantzaren bitartez jaso ditzaketen prestazioekin bateragarriak dira.

54. artikulua. Prestazioak jasotzeko eskubidea.

Erakundearen bazkide oso bakoitzak, eta, hala badagokio, bazkidearekin duten loturarengatik dagozkien pertsonak, Estatutu honetan zehaztutako prestazioak jaso ahal izango dituzte, betiere Prestazioei buruzko Erregelamenduan prestazio bakoitzerako zehaztutako eskakizunak eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta bahiturarik edo traba judizialik edo administratiborik ez badute, kasu horretan dagokion manua beteko baita.

Edonola ere, behin gertaera eragilea jazo dela, prestazioa kobratzeko eskubidea aitortu eta ordaindu egingo da, eskaera aurkeztu eta hurrengo hilabetearen azken eguna baino lehen.

55. artikulua. Erretiro-prestazioa.

55.1. Prestazioei buruzko Erregelamenduan zehaztutakoaren arabera, erretiro-prestazioak bazkide osoari aukera ematen dio erretiratzen denean prestazio ekonomiko bat jasotzeko.

Erretiro-prestazioarekin, bazkideari behin-behineko errenta ordainduko zaio 90 urte betetzen dituen arte, eta adin horretatik aurrera, biziarteko errenta bat jasoko du. Errenta horren zenbatekoa prestazioa ematen den unean bertan kalkulatu da, ordura arte metatu duen eskubide ekonomikoaren arabera. Biziarteko errentak barne hartzen du erretiro-errentaren % 100eko biziarteko errenta haren alargunarentzat.

Erretiratuaren alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean, betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

Erretiratua hilko balitz, alarguntzaren onuradunak izango du errenta hori kobratzeko eskubidea bizi den bitartean.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik erretiratua hilko balitz eta alarguntza jaso dezakeen onuradunik ez badago edo azken hori ere hilik badago, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, bazkide osoak 90 urte beteko zituen unera arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, bazkide osoak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

55.2. Aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulatuta) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako zenbatekoa ezingo da inoiz ere prestazioa ematen den unean bazkideak ekarpen indibidualekin lortutako aurrezpena baino handiagoa izan.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, bazkide osoak zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango du.

56. artikulua. Ezintasun iraunkorraren prestazioa.

56.1. Prestazioei buruzko Erregelamenduan zehaztutakoaren arabera, ezintasun iraunkorraren prestazioak bazkide osoari aukera ematen dio prestazio ekonomiko bat jasotzeko, modu iraunkorrean ezinduta balego.

Ezintasun iraunkorraren ondorioz, bazkideari behin-behineko errenta ordainduko zaio 90 urte betetzen dituen arte, eta adin horretatik aurrera, biziarteko errenta bat jasoko du. Errenta horren zenbatekoa prestazioa ematen den unean bertan kalkulatu da, ordura arte metatu duen eskubide ekonomikoaren arabera. Biziarteko errenta horren ondorioz, alarguntzaren onuradunak biziarteko errenta jasoko du, ezintasun iraunkorrerako errentaren % 100ekoa izango dena.

Jarduneko bazkide osoei dagozkien eskubide ekonomikoek, eskubide ekonomikoaz gain, kapital gehigarria barne hartuko dute; aldiz, etendura-egoeran dauden bazkide osoen kasuan, eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarrikerik barne hartuko.

Ezinduaren alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean, betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

Ezindua hilko balitz, alarguntzaren onuradunak izango du errenta hori kobratzeko eskubidea bizi den bitartean.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik ezindua hilko balitz eta alarguntza jaso dezakeen onuradunik ez badago edo azken hori ere hilik badago, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, bazkide osoak 90 urte beteko zituen unera arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, bazkide osoak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoreetarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

56.2. Aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulaturik) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako zenbatekoa ezingo da inoiz ere prestazioa ematen den unean bazkideak ekarpen indibidualekin lortutako aurrezpena baino handiagoa izan.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, bazkide osoak zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango du.

57. artikulua. Alarguntzaren prestazioa jardunean edo etendura-egoeran dagoen bazkidea hiltzen denean, alarguntzaren onuradun den pertsona bat dagoenean.

57.1. Jardunean edo etendura-egoeran dagoen bazkidearen heriotzagatiko alarguntzaren prestazioaren kasuan, onuradunari prestazio ekonomikoa ordainduko zaio.

Jardunean edo etendura-egoeran dagoen bazkide osoan heriotzagatiko alarguntzaren prestazioaren ondorioz, bazkideari behin-behineko errenta ordainduko zaio 90 urte betetzen dituen arte, eta adin horretatik aurrera, biziarteko errenta bat jasoko du. Errenta horren zenbatekoa prestazioa ematen den unean bertan kalkulaturik da, ordura arte metatu duen eskubide ekonomikoaren arabera.

Jarduneko bazkide osoei dagozkien eskubide ekonomikoek, eskubide ekonomikoaz gain, kapital gehigarria barne hartuko dute; aldiz, etendura-egoeran dauden bazkide osoen kasuan, eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarririk barne hartuko.

Hildako kausatzailearen alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean, betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik alarguntza jaso dezakeen onuraduna hilko balitz, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, alarguntzaren onuradunak 90 urte beteko zituen unera arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, alarguntzaren onuradunak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoreetarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

57.2. Aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulatuta) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako zenbatekoa ezingo da inoiz ere prestazioa ematen den unean bazkideak ekarpen indibidualekin lortutako aurrezpena baino handiagoa izan.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, jardunean edo etendura egoeran hildako bazkide osoaren onuradunek zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango dute.

58. artikulua. Zurztasun-prestazioa jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkidearen heriotzarengatik, zurztasun-onuradunak daudenean soilik.

58.1. Jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkide osoaren heriotzagatiko zurztasun-prestazioaren ondorioz, pertsona onuradunari kapital, edo, hala badagokio, errenta bat ordainduko zaio 25 urte betetzen dituen arte, alarguntza-prestaziorik jaso ezin bada, betiere.

Hildako kausatzailearen seme-alabak dira pertsona onuradunak, alarguntza-prestaziorik ez badago, betiere.

58.2. Prestazio horri dagokion kapitala une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan, eta bazkide osoaren seme-alaba guztien artean berdin banatu da. 25 urtetik beherako umezurtz bakoitzak dagokion zenbatekoa behin-behineko errenta modura jasoko du, adin hori bete arte.

Jarduneko bazkide osoei dagozkien eskubide ekonomikoak, eskubide ekonomikoaz gain, kapital gehigarria barne hartuko dute; aldiz, etendura-egoeran dauden bazkide osoen kasuan, eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarrikerik barne hartuko.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik zurztasunaren onuraduna hilko balitz, bazkide osoaren oinordekoek aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, umezurtzak 25 urte beteko zituen arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, umezurtzak 25 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatzen dira oinordekoen artean. Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

59. artikulua. Prestazioa jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkide osoaren heriotzarengatik, alarguntzaren eta zurztasunaren pertsona onuradunak ez badago.

59.1. Jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkide osoaren heriotzagatiko prestazioarekin, bazkidearen oinordekoei kapital bat ordainduko zaie bazkidea hitzen denean, alarguntzaren eta zurztasunaren prestaziorik ematen ez bazaie.

59.2. Prestazio horri dagokion kapitala une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan.

Jarduneko bazkide osoei dagozkien eskubide ekonomikoak, eskubide ekonomikoaz gain, kapital gehigarria barne hartuko dute; aldiz, etendura-egoeran dauden bazkide osoen kasuan, eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarrikerik barne hartuko.

60. artikulua. Prestazioa gaixotasun larriarengatik.

Erregelamenduan gaixotasun larriarengatik zehaztutako prestazioarekin, bazkideak errenta bat jasoko du hilero egoera horrek iraun bitartean. Zenbateko hori azkeneko hamabi ekarpen indibidualen batezbestekoa bost aldiz biderkatuta izango da, gehienez, eta haren eskubide ekonomikoari egotziko zaio, hura agortzen den arte.

Jarduneko bazkide osoa bada, ekarpenak egin beharko dizkio Erakundeari, prestazio hori jaso bitartean.

61. artikulua. Prestazioa iraupen luzeko langabeziarengatik.

Erregelamenduan iraupen luzeko langabeziarengatik jasotako prestazioarekin, bazkideak errenta bat jasoko du hilero egoera horrek iraun bitartean, hau da, bazkideari kontribuzio mailako langabezia prestazioan jasotakoaren arabera prestazioa emango zaio. Bazkideak prestazioa ordaintzea bakarrez ematea eska dezake, enplegua sustatzeko helburuarekin. Errenta hori haren eskubide ekonomikoari egotziko zaio, hura agortzen den arte.

VI. KAPITULUA BAZKIDEEN DIZIPLINA ARAUBIDEA ETA GOBERNU ORGANOEEN ERABAKIEI KONTRA EGITEKO ARAUBIDEA.

LEHENENGO ATALA.- FALTAK ETA ZEHAPENAK

62. artikulua. Faltak

Bazkide osoak eta pertsona onuradunak atal honetan ezartzen diren falten erantzule izango dira.

63. artikulua. Falta motak.

Faltak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

63.1. Falta arinak izango dira:

a) Estatutuen edo arauzko manamenduak edo funtzionamendu-arauak ez betetzea, aitzakiarik gabeko ezjakintasunarengatik.

b) Erakundeari helbidez aldatu izanaren berri ez ematea.

63.2. Falta larriak izango dira:

- a) Erakundeari ez jakinaraztea Bazkidearen edo onuradunen egoera aldatu dela, horrek jaso beharreko prestazioei eragiten dienean.
- b) Artikulu honen aurreko atalean zehazten diren falta arinak bi urteko epean errepikatzea.

63.3. Falta oso larriak izango dira:

- a) Erakundeari prestazioak edo gastuak sor diezazkiokeen gaixotasunak edo istripuak nahita eta maltzurki ezkutatzea, simulatzea, eragitea edo larriagotzea.
- b) Iruzur egitea edo helburu horretarako bitartekoak borondatez jartzea, Erakundearen interesen kalterako.
- c) Artikulu honen 2. atalean adierazitako faltak bi urteko epean errepikatzea.

64. artikulua. Zehapenak.

Aurreko artikuluan adierazitako faltengatik zehapen hauek ezarri ahal izango dira orokorrean:

64.1. Falta arinengatik, ahozko edo idatzizko ohartarazpena.

64.2. Falta larriak:

- a) Ohartarazpen publikoa Gobernu Batzordeak ezarritako publizitate-mailarekin, zehapena zentzagarria izan dadin.
- b) Zehapen ekonomikoa, Gobernu Batzordeak erabakiko duelarik zenbatekoa. Zenbatekoa, halere, kuoten urterokoa izan daiteke gehienez ere.
- c) Prestazioak partzialki etetea, hilabeteko epeaz gehienez ere.

64.3. Falta oso larriak:

- a) Prestazioak partzialki edo osorik etetea, sei hileko epeaz gehienez ere.
- b) Bidegabe jasotako kopuruak itzultzea eta Gobernu Batzordeak erabakitako zehapen ekonomikoa ordaintzea. Faltaren larritasuna kontuan izanik, zehapena hamar bider handiagoa izan daiteke, eta, halaber, hala badagokio, Erakundetik kanporatzea erabaki dezakete.

- c) Falta ekonomikoki zenbatetsi ezin bada, Gobernu Batzordeak ezarriko du zehapen ekonomikoa. Zehapenaren zenbatekoa bi urtez egindako ekarpenak har ditzake gehienez, eta, horrez gain, hala badagokio, Erakundetik kanporatzea erabaki dezakete.
- d) Kanporatzea.

BIGARREN ATALA.- PROZEDURA ETA BALIABIDEAK.

65. artikulua. Espedientea.

Falten espedientearen bi kopia beteko dira, dokumentu guztietan, eta horietako bat Erakundearen artxiboan gordeko da bazkide bakoitzaren espedientearekin batera, modu honetara:

65.1. Erakundeko presidenteak kalifikatuko ditu faltak lehenik, eta kaltetuari idatziz jakinarazteaz gainera, zehapen-proposamena bidaliko dio. Espedientea duen pertsonak hamar egun balioduneko epean deskargua egin dezake, jakinarazpena jasotzen duenetik. Epea amaitzean (deskarguarekin edo deskargurik gabe), presidenteak lehen instantzian hartuko du erabakia.

65.2. Kaltetuak helegitea jar diezaioke zehapenari, Gobernu Batzordera idazkia bidaliz. Hark kalifikazioa eta zehapena behin betiko berretsi edo aldatuko ditu, eta horren ostean, ezingo da helegiterik aurkeztu. Gobernu Batzordeak idazkia jaso ondoren egiten duen lehenengo bileran hartuko du erabakia.

65.3. Ezarritako zehapena kanporatzea izanez gero, zehapena jaso duen pertsonak helegitea jar dezake, Batzar Nagusian. Horretarako, idatzia bidali beharko dio Batzarri, hilabeteko epean, zehapenaren berri jasotzen duenetik. Batzar Nagusiak dagokiona erabakiko du hurrengo bileran. Helegitea aurkezten bada ere, ez da zehapenaren betearazpena inolaz ere etengo.

66. artikulua. Epeak.

Dagozkion epaiak jakinarazita, epe hauek bete behar dira aurreko artikuluan aipatzen diren helegiteak aurkezteko:

- Hamabost egun baliodun, falta arinen kasuan.
- Hemezortzi egun baliodun, falta larrien kasuan.
- Hogeita bat egun baliodun, falta oso larrien kasuan.

Falta arinak lau hilabetera preskribatuko dira burutzen direnetik, falta larriak sei hilabetera, eta oso larriak, berriz, hamabi hilabetera.

67. artikulua. Betearaztea.

Zehapen guztiek (kanporatzea izan ezik) eragina izango dute helegiteak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, espedientea duen pertsonak eskubide hori gauzatu ez badu, edo dagokion organoak epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera, epai hori irmoa denean.

68. artikulua. Ezeztatzea.

Gobernu Batzordeak urtero ezezta ditzake ezarritako zehapenak. Horretarako, bazkideei emandako zehapen-ohartarazpenak baliogabetu, eta bazkideak birgaituko ditu, Erakundearekiko dituzten betebeharrak bete ahal izan ditzaten.

HIRUGARREN ATALA.- GOBERNU ORGANOEN ERABAKIAK AURKARATZEA

69. artikulua. Zuzenbideko arbitrajea.

Erakundearen Batzar Nagusiko, eta, hala badagokio, Gobernu Batzordeko erabakiei kontra egiten zaienean legearen eta estatutuen aurkakoak izateagatik edo bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen mesedetan BGAEn edo haren bazkideen edo onuradunen interesak kaltetzeagatik, auzia abiarazi aurretik erabaki horiek indargabetu edo beste batzuegatik baliozkotasunez ordeztu ez badira, aurkaratzeak Bilboko Merkataritzako Arbitraje Auzitegian behin betiko ebatziko dira, beste edozein jurisdikzio-foruri uko eginda. Auzitegi horri dagokio arbitrajea administratzea eta auzia zuzenbidearen arabera ebatziko duen arbitro bakarra izendatzea, hori guztia aipaturiko Epaitegi Arbitralaren araudia eta estatutuak betez. Halaber, bazkideek eta Erakundeak Auzitegi horrek emandako arbitraje-laudoari men egingo diotela onartzen dute.

70. artikulua. Aurkaratzea.

70.1. Erakundearen Gobernu Organoen erabakiak aurkaratzeko epea urtebetekoa izango da, horien baldintzengatik, kausarengatik edo edukiarengatik ordena publikoaren kontrakoak diren erabakien kasuan izan ezik, kasu horretan egintza ez baita iraungiko, ezta preskribatuko ere.

70.2. Iraungitze-epea erabakia hartzen denetik zenbatuko da.

71. artikulua. Legezkatzea.

Zilegizko interesa dutela egiaztatzen duten bazkideak eta gobernu-organoetako kideak eta onuradunak legezkotuta daude.

LAUGARREN.- ESTATUTUAK ETA ERREGELAMENDUA ALDATZEA

72. artikulua. Estatutuak eta Erregelamendua aldatzea.

72.1. Erakundearen Batzar Nagusiari dagokio Estatutuak aldatzea. Horretarako, erabakia hartzeko, botoen gehiengoa behar da, bi herenekin.

72.2. Erakundearen Gobernu Batzordeari dagokio Prestazioei buruzko Erregelamendua aldatzea, eta, horretarako, botoen gehiengo sinplea beharko du.

72.3. Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan egindako aldaketak eraginkorrak izan daitezten, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren, edo, hala badagokio, hura eskuordetzen duen organoaren baimena beharko da, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan jaso beharko dira.

VII. KAPITULUA. GATAZKAK ERAKUNDEAREN BAITAN KONPONTZEA

73. artikulua. Bazkideen erreklamazioak.

73.1. Bazkideek eta onuradunek Gobernu Batzordean aurkeztuko dituzte Prestazioei dagokienez Erregelamenduan eta Estatutuetan eta aplikaziozko gainontzeko funtsezko araudian aitortuta dituzten interesei eta eskubideei buruzko kexak edo erreklamazioak.

73.2. Kexak eta erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira Gobernu Batzordean. Arrazoia adierazi beharko da, eta erabaki beharreko gaiak zehaztu, baita bidezkotzat jotzen diren agiriak eta frogak aurkeztuko ere.

74. artikulua. Aurkezpen-epea eta ebazpena.

74.1. Kexa edo erreklamazioa aurkezteko epea urtebetekoa da, kexaren edo erreklamazioaren gertaera eragilea eman zenetik.

74.2. Kexa edo erreklamazioa 15 eguneko epean erabakiko da, Erakundearen sartzen denetik. Epea amaituta ebazpen espresik eman ez bada, uko egin zaiola joko da, eta bide administratiboa, arbitrala eta judiziala irekiko dira.

Gobernu Batzordearen erreklamazioak ebazteari dagokionez, Estatutuek ezartzen dute presidenteari egotzi ahal zaiola funtzio hori, eta, beraz, hari dagokiola erreklamazioak ebaztea, Gobernu Batzordeak arazoak ebazteko epearen barruan biltzerik ez badu. Ebazpena

eskuordetu ala ez, erabakia Gobernu Batzordeak hartu duela iritziko zaio, ondore guztietarako.

74.3. Edonola ere, ebazpena arrazoitu beharko da, eta estatutuen, arauen eta funtsezko araudiaren legezko aplikazioaren oinarriak bilduko ditu. Interesdunari erabakiaren berri emango zaio 10 eguneko epean, ebazpena hartzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpena loteslea izango da Erakundearentzat. Hala ere, interesdunak bestelako egintzak bidera ditzake gai horren gainean, administrazioaren, epaitegien edo arbitrajearen bidetik.

VIII. KAPITULUA ERAKUNDEA DEUSEZTATZEA ETA DESEGITEA

75. artikulua Desegiteko kausak.

75.1. Erakundea kasu hauetan desegingo da:

- a) Erakundearen helburua burura eramatea edo hura burura eraman ezin izatea.
- b) Bazkideen eta onuradunen taldea desagertzea.
- c) Aurreikuspen-jarduera arrazoi justifikaturik gabe geratzea edo etetea, ondoz ondoko bi ekitaldiz.
- d) Erabat fusionatzea edo zatitzea.
- e) Ezohiko Batzar Nagusiak hala erabakitzea, Estatutu hauetan jasotako gehiengoa ados egonda.
- f) Aplikatu daitezkeen funtsezko araudian zehaztutako epeak eta baldintzak berrorekatzeko plana betetzeko ezin izatea.

75.2. Edonola ere, Erakundea desegin eta likidatuko da, funtsezko araudia betez, Administrazioak Erakundearen jardunerako baimena baliogabetzen duenean.

76. artikulua. Likidatzeko prozedura, aktiboak esleitzea eta funtsen xedea.

Behin erakundea deuseztatzea adostuta, likidazioaren prozedura aplikaziozko funtsezko araudian ezarritako izapideen eta prozeduren arabera egingo da, eta horietan xedatutakoaren arabera esleituko dira aktiboak.

Hala ere, ondarea esleitzeko lege-xedapenak bete ondoren soberakinik balego, jardunean eta etendura-egoeran dauden bazkide osoen artean proportzionalki banatuko dira.